

Kirolari, klub eta Euskal Triatloi Federazioari lotutako beste pertsona agurgarriak.

Euskadiko Triatloi Federazioko presidente berri gisa zuen aurrean aurkezten naiz, federazioari garai zail hauek gainditzeko laguntzeko gogoarekin eta egonkortasun bat bai kirol, ekonomiko eta sozial arloetan lortzeko nahian, gure federazioa merezi duen tokira eramanez.

Presidente izateko erabakia hau, giza talde bat lortu dudalako izan da, zeinarekin ziur nago geure buruari jarritako helburuak lortuko ditugula. Izatez, haiek gabe ezinezkoa izango litzateke hain asmo handiko eta ilusioz beteriko proiektu honi ekin izana.

Zuzendaritza batzordeko kide bakoitzak esperientzia zabala du kirolari gisa, antolatzaile gisa, ofizial gisa eta baita triatloi eskolekin lanean ere, guztiok nahi dugun federazioari forma eta egitura emateko aprobetxatuko duguna.

Azken urte hauetan, bilakaera handia izan dugu triatloian, eta federazioak erritmo berean joan behar du gure hiru lurraldeetan triatloia babestu, lagundu eta sustatzeko. Euskadi erreferentziazko herrialdea izan bada (eta izatez bada) eta ekonomia eta gizarte moduan abangoardian beti egon bada, era berean triatloiaren munduan berriro ere erreferente izan gaitezen lan egingo dugu.

Gure helburu guztiak lor ditzagun, batzorde honetako kide bakoitzak eginkizun argi bat du bere eskumenen eremuan, batzorde osoaren erabateko askatasunarekin eta laguntzarekin.

Gure federatu guztiak, baita antolatzaileak ere, gure lehentasun nagusitzat hartuko dira, beraiek izango baitira federazioa denok lortu nahi dugun jarrera horretara abiarazten duen palanka, horretarako, triatloiaren arlo guztietan esperientzia handia duen batzordeko kide bat, antolatzaileen eskura jarriko da, lehiaketa guztiek hazten jarrai dezaten eta maila gorenean egon daitezen.

Presidente naizen zuzendaritza batzorde honen beste helburuetako bat harrobiaren garapena hobetzea eta bultzatzea da, gure federazioaren hazia eta etorkizuna baita, beraz, lurralde federazioekin batera, eskola kirolari eta kadete, jubenil eta juniorren lehiaketei protagonismoa ematea azpimarratuko dugu, nazio mailako txapelketetan borrokatu daitekeen selekzio indartsu bat izateko helburuarekin. Federazio honek autonomien arteko lehiaketa guztietan presente eta ordezkatuta egon behar du eta merezi du.

Euskal triatloi federazioa ez da zuzendaritza batzorde hori bakarrik, triatloiaren munduaren inguruan dabilzan kirolari, antolatzaile, lurralde, enpresa eta erakunde publiko guztien batasuna eta batuketa da.

Lortu behar dugu bai antolatzaileek, bai ofizialen erkidegoak, bai kirolariek elkarren artean ez arerio bezala ikusten, baizik eta Euskadin triatloi sendoa, errespetatua eta miretsia izan dadin beharrezko eta osagarri elementu gisa.

Lan gogor eta biziko asteak izaten ari dira, jarritako helburuak lor ditzagun proiektuari forma ematen. Ziur gaude elkarrekin Euskadiko triatloientzako etorkizun oparoa eraikitzen jarraituko dugula.

